

BARNE ARAUDIA

“BIZKAIKO TXAKOLINA/TXAKOLI DE BIZKAIA/CHACOLI DE BIZKAIA” JATORRIZKO DEITURA

Euskadiko Autonomia Erkidegoak Mahasgintza eta Ardogintza antolatzeko maiatzaren 7ko 5/2004 Legea aldarrikatu zuen. Bertako IV. tituluari, hain zuzen ere, EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOAN EGINDAKO KALITATEKO ARDOAK arautzen dira; eta III. kapituluari, KUDEAKETA ORGANOAK.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurako sailburuak 2008ko ekainaren 17an emandako Aginduaren bidez, “Bizkaiko Txakolina/Txakoli de Bizkaia/Chacolí de Bizkaia” Jatorrizko Deiturari buruzko Araudia aldatu zen, eta, horrez gain, bere behin betiko testua onartu zen. Araudi horretako 30.2. artikulua garatzeko asmoz, Kontseilu Arautzaileak (aurrerantzean, KA) Barne Araudi hau egin eta onartu egin du.

1. artikulua. Jatorrizko deiturari buruzko arautegia.

1. “Bizkaiko Txakolina/Txakoli de Bizkaia/Chacolí de Bizkaia” Jatorrizko Deitura (aurrerantzean, JD) honako hauexen arabera arautuko da:

- Unean-unean, Europar Batasunean eta Estatuan indarrean dagoen arautegia.

- Eusko Legebiltzarrak Mahasgintza eta Ardogintza Antolatzeko maiatzaren 7an emandako 5/2004 Legea.

- “Bizkaiko Txakolina/Txakoli de Bizkaia/Chacolí de Bizkaia” JDri buruzko Araudia aldatu eta bere testu bateratua onartzen duen 2008ko ekainaren 17ko Agindua.

- Barne Araudi hau.

2. Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko II. tituluko II. kapitulua osagarria izango da, ordea.

2. artikulua. Azalpena eta helburua.

1.- Barne Araudi honek JDri buruzko Araudi garatzea eta osatzea du helburu. Gainera, haren arabera izateaz gain, errespetatu egin beharko du.

2. Barne Araudia onartzeko eta aldatzeko, KAko Batzak bertako kide guztien erabateko gehiengoa lortu beharko du.

3. artikulua. KAren helbidea.

1. Hona hemen JDren KAren helbidea: Leioa (Bizkaia), Mendibile auzoa 42, PK 48940.

2. KAK halaxe erabakiz gero, helbide hori udalerrri bereko beste leku batera eraman ahal izango da, eta Eusko Jaurlearitzako zein Foru Aldundiko sail eskudunari eman beharko zaio horren berri.

3. KAren helbidea beste udalerrri batera eraman nahi izanez gero, KAko Batzaren 2/3ko gehiengo kualifikatua lortu beharko da.

4. artikulua. *KAren izaera, xedea eta araubide juridikoa.*

1. JDren KA zuzenbide publikoko korporazioa da, bere nortasun juridikoa zein autonomia ekonomikoa ditu eta bere helburuak betetzeko gaitasun osoa dauka.

2. Bertako gobernu-organoen bidez JD kudeatzea da KAren xede nagusia.

3. KAren funtzionamendua zuzenbide pribatuaren arabera izango da oro har, honako jarduketak haurtan izan ezik, ahalmen publikoen erabilera izatean zuzenbide administratiboko arauen eraginpean eta Eusko Jaurlaritzako sail eskudunaren tutoretzapean egongo direlako:

a) JDko erregistroak kudeatzea.

b) Finantziario-kuotak kudeatzea.

c) Jatorriari buruzko ziurtagiriak eta berme-zigiluak egitea.

d) Etiketak eta kontraetiketak baimentzea.

e) Kalitateko ardoan eragina duten faktoreetan, babestutako ardoetan erabili daitezkeen merkataritza-etiketen erabilera onartzea eta kontrolatzea.

f) JDri buruzko Araudian zehaztutako mugen barruan, honako hauxe ezartzea kanpaina bakoitzerako: errendimenduak, ekoizpen edo eraldaketaren gehienezko mugak edo urtez urte halako prozesuetan eragina izan dezakeen edozein faktore.

4. Aurreko idatz-zatian aurreikusita ez dagoen guztian, KA zuzenbide pribatua eta, batez ere, kontratazioan eta ondareari zein langileei buruzko araubidean xedatutakoa hartuko du kontuan. Dena dela, irabazi-asmorik gabeko funtzionamenduaren oinarriko printzipioari eutsiko dio beti.

5. Hona hemen KAren antolamenduaren oinarriko printzipioak: ordezkaritza demokratikoa, kalitateko ardogintzako sektoreek interes ekonomikoen ordezkagarritasuna (gutxiengodunei lehentasuna emanda) eta mahasgintzako zein ardogintzako sektoreen pareko ordezkaritza. Izan ere, oreka egokia egon behar da bertako interes guztien ordezkartzan.

6. KA enpresa publiko eta pribatu, sozietate zibil edo merkataritza-sozietate, elkarte edo fundazio, zuzenbide publikoko korporazio, kontseilu arautzaile edo beste pertsona juridiko batzuetan parte hartu ahal izango du, betiere haien helburua babestutako produktuak defendatzea, kontrolatzea, sustatzea eta banatzea bada. Horretarako, beharrezkoak diren lankidetzahitzarmenak ezarri ahal izango ditu.

5. artikulua. *KAren eskumen-esparrua.*

JDri buruzko Araudian zehazten da zein den KAren eskumen-esparrua.

6. artikulua. *KAren helburuak eta eginkizunak.*

Besteak beste, honako hauexek izango dira KAko gobernu-organoen helburuak eta eginkizunak:

1) Kalitateko ardoen arloan, administrazio publikoekin lan egiteko eta galdeketak egiteko erakundeak izatea.

2) Kalitateko ardoaren prestigioa eta sustapena zaintzea.

3) JDko operadoreen erregistroak kudeatzea.

4) Kalitateko ardoak ekoizteko eta merkaturatzeko sistemen jakintza eta ezarpena ikertzea eta zabaltzea eta operadore-eskatzaillei zein administrazioari gai horiei buruzko informazioa ematea.

5) Jatorriari buruzko Araudiaren aldaketak proposatzea.

6) JDko Mahastien Erregistroan izena emateko asmoz, ekoizpen-eremuan dauden lurren ordezkapen arruntaren, landaketa berrien eta birlandaketen baimenerako txosten loteslea egitea.

7) Kontsumitzaileei babestutako ardoen kalitate-ezaugarriei buruzko informazioa ematea.

8) Sustapen-jarduerak egitea.

9) Babestutako produktuen ekoizpen, prestaketa eta merkaturaketari buruzko estatistikak egitea, barne-erabilera, zabalkunde eta ezagutza orokorrerako.

10) Kalitateari buruzko arau berezian KAREN finantziaziorako zehaztutako derrigorrezko kuotak kudeatzea.

11) Babestutako ardoen jatorriari buruzko ziurtagiriak eta berme-zigiluak egitea.

12) Kalitateko ardoan eragina duten faktoreetan, babestutako ardoetan erabili daitezkeen etiketen eta kontraetiketen erabilera onartzea eta kontrolatzea.

13) JDri buruzko Araudian zehaztutako mugen barruan, honako hauxe ezartzea kanpaina bakoitzerako, kalitatea defendatzeko eta hobetzeko irizpideetan oinarrituta: errendimenduak, ekoizpen edo eraldaketaren gehieneko mugak edo urtez urte halako prozesuetan eragina izan dezakeen edozein faktore.

14) Ekoizpen, prestaketa eta merkaturaketako fase guztietan operadoreek bete beharreko gutxieneko kontrol-betekizunak zehaztea, bai eta hasierako emakidarako eta ziurtagiriaren euspenerako gutxieneko kontrolak ere.

15) Agintari eskudunei erregistro publiko ofizialak artatzen laguntzea, batez ere. Era berean, kontrol-organismoekin batera lan egitea.

16) Ekoizpen-eremuaren garapena iraunkorra dela bermatzea.

17) Aurrekontuak egitea, onartzea eta kudeatzea.

18) Urta edo uzta bakoitza kalifikatzea.

19) Kasuan kasuko erregistroetan izena eman duten instalazioetan babestutako ardoek egindako sarrera eta irteeren jarraipena eta kontrola egitea.

20) Egokiak diren azterketa fisiko-kimiko eta organoleptikoak eta kontrol-organismoaren txosten loteslea egin ondoren, babestu daitezkeen ardoen jatorria kalifikatzea eta deskalifikatzea eta, hala badagokio, kasuan kasuko ziurtagiria egitea.

21) Babestutako ardoen ekoizpena, jatorria, prestaketa eta merkaturaketa kontrolatzea.

22) Ardogileen eta upategien hauteskunde-erroldak egitea eta eguneratzea.

23) Mahasgintza eta Ardogintza Antolatzeko Legeko 35. artikuluan adierazten denez, kontrol-organismo independentea hautatzea eta kontratatzea. KAKo erregistroetan izena eman duten operadore guztiak haren menpe egongo dira, gainera.

24) Mahasgintza eta Ardogintza Antolatzeko Legearen esparruan, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak 2008ko ekainaren 17an emandako

Aginduko zehapen-ahalmena erabiltzea. Agindu horren arabera, hain zuzen ere, “Bizkaiko Txakolina/Txakoli de Bizkaia/Chacolí de Bizkaia” JDri buruzko Araudia aldatu eta bere testu bateratua zein garapenerako gainerako arauak onartzen dira.

25) Babespeko ardoaren inguruko ustezko arau-hausteengatik zehapen-espeditenteen berri edukitzea, eurek ireki ez dituztenean.

26) Enpresa publiko eta pribatu, merkataritza-sozietate eta elkarte edo fundazioetan parte hartzea, betiere haien helburua babestutako produktuak defendatzea, kontrolatzea, sustatzea eta banatzea bada.

27) Mahasgintza eta Ardogintza Antolatzeko maiatzaren 7ko 5/2004 Legearen esparruan, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak 2008ko ekainaren 17an emandako Aginduan zehaztutako beste eginkizun batzuk egitea. Agindu horren arabera, hain zuzen ere, “Bizkaiko Txakolina/Txakoli de Bizkaia/Chacolí de Bizkaia” JDri buruzko Araudia aldatu eta bere testu bateratua zein garapenerako gainerako arauak onartzen dira.

7. artikulua. *Gobernu-organoak.*

Hona hemen KAko gobernu-organoak: batza, presidentea, presidenteordea eta Barne Araudi honetan zehaztutako beste edozein.

8. artikulua. *Batza.*

1. Batza KAko kide anitzeko gobernu-organoa da, eta JDko erregistroetan izena eman duten mahasti eta upategietako titularren ordezkaria da.

2. Hona hemen batzako kideak:

- KAko presidentea.

- Kako presidenteordea.

- Kideak.

- Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko ordezkari bat. Eusko Jaurlaritzako sail eskuduneko sailburuak izendatuko du, eta hitza izango du, baina botorik ez.

- Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkari bat. Nekazaritzako foru-diputatuak izendatuko du, eta hitza izango du, baina botorik ez.

- KAko idazkaria. Hitza izango du, baina botorik ez.

3.- Presidenteak eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko zein Foru Aldundiko ordezkariak teknikariaren laguntza jaso ahal izango dute, bilerarako beharrezkoa izanez gero. Hitza izango dute, baina botorik ez.

9. artikulua. *Batzaren eginkizunak.*

1. Hona hemen batzaren eginkizunak:

a) Aurrekontuak, urteko memoria eta aurreko ekitaldiko aurrekontu-likidazioa onartzea eta Eusko Jaurlaritzako sail eskudunera bidaltzeko erabakia hartzea. Era berean, ezohiko aurrekontuak eta derramak onartzea, helburu bereziak finantzatzeko; esate baterako, publizitatea, ikerketa eta abar.

b) Korporazioaren diru-sarrerak eta fondoak administratzea eta ordainketak agintzea.

c) KA finantzako baliabideak zehaztea eta zerbitzugintzagatiko tarifen kalkulurako oinarriak onartzea.

d) Idazkariak egindako kudeaketa ekonomikoaren jarraibide orokorrak ezartzea eta, hala badagokio, berrestea.

e) Ondarearen besterenketa eta kreditu-eragiketen gauzapena onartzea. KAren alde egindako herentziak, dohaintzak edo doako beste edozein ondasun-ekarpen onartzea.

f) KAko zerbitzuak antolatzeke jarraibideak onartzea.

g) Langile-taldeak eta euren kontrataziorako oinarriak onartzea.

h) Barne-araubidea eta zerbitzuak antolatzea eta KAko langileak kontratatzea, lanik gabe uztea, iraitzea edo berritzea.

i) KAko idazkaria izendatzea eta kargutik kentzea.

j) KAren jarduketa eta kudeaketarako urteko planak onartzea.

k) Jatorrizko Deituraren Araudiaren aldaketak proposatzea.

l) JDko erregistroetako altak eta bajak onartzea edo gaitzestea.

m) Zehapen-espeditenteak irekitzea eta bideratzea eta, zehapena 12.000 eurotik gorakoa ez denean, espeditenteok ebaztea.

n) Beste erakunde batzuetan dituen ordezkarien izendapena onartzea.

ñ) Administrazio publikoekin eta beste edozein erakunderekin egindako lankidetzak-hitzarmenak onartzea, bai eta KAK elkarte, fundazio eta sozietate zibil edo merkataritza-sozietateen sorrerari edo desagerpenari buruz edo bertako partaidetzari buruz hartutako erabakiak ere.

o) Euren eskumeneko gaietan administrazio publikoei bidali beharreko txostenak onartzea.

p) Edozein jurisdikzioaren aurrean JDren aldeko ekintzak garatzeko eta helegiteak aurkezteko eta JDn zein KAn eragina duten edonolako legez-xedapenak inpugnatzeko erabakiak hartzea, ekoizleenak, prestatzaileenak, autonomikoak, estatalak, Europar Batasunekoak edo nazioartekoak diren kontuan hartu gabe. Batez ere, JDri buruzko arautegi berezia ezartzean, Eusko Jaurjaritzako eta Foru Aldundiko sail eskudunak emandako egintzen aurkako administrazioarekiko auzi-helegitea.

q) Urtae edo uzta bakoitza kalifikatzea.

r) KAri berez esleitutako beste eginkizun batzuk garatzea, betiere beste organo batzuei esleitu ez bazaizkie.

2. Aurreko idatz-zatiko eginkizun guztiak batzuk zehaztutako pertsonari, karguari edo organoari eskuordetu ahal izango zaizkie.

3. Erabakiak jakinarazi eta argitaratzean, Herri Administrazioen Araubideari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeko 58. artikuluan xedatutakoa hartuko da kontuan, ahalmen publikoen erabilera hartzen direnean.

KAren erabakiak eta ebazpenak partikularrak ez direnean eta inskribatu anitzetan eragina dutenean, KAko bulegoetan, udaletxeetako iragarki-tauletan eta sektorean legearen arabera eraturako erakundeetan jarri beharko dira ikusgai, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dira.

10. artikulua. Batzaren funtzionamenduari buruzko araubidea.

1. Presidenteak bere ekimenez edo kideen erdiek eskatzen diotenean edo araudi honen arabera egokia denean egindako deialdiaren ondoren bilduko da batza. Dena dela, ohiko bilera egin beharko du hiru hilean behin, gutxienez.

2. Batzaren bilerak presidenteak berak deituko ditu lau egun natural lehenago, betiere premiazkoak ez badira, halakoetan epealdi hori hogeita lau ordukoa baino ez delako izango. Deialdia edozein sistemaren bidez egin ahal

izango da, betiere deitutakoek deialdia jaso dutela bermatzen badu. Deialdian bertan, gai-zerrenda zein den eta bilera zer egun, leku eta ordutan egingo den adierazi beharko da.

3. Batza hiru kide hautetsik eskatuta deitzen denean, eskabidean adierazitako gaiak sartuko dira gai-zerrendan, eta presidenteak eskabidea jaso duenetik hasi eta hurrengo hiru egun naturaletan egingo da bilerarako deia. Dena dela, 15 laneguneko epean egin beharko da, gehienez ere.

4. Bileretan, ezin izango da gai-zerrendan agertzen ez diren gaiei buruzko eztabaidak egin eta erabakiak hartu, betiere bertaratutakoan gehiengoak aldeko botoa ematen ez badu gaia premiazkoa dela adierazteko.

5. Batza behar bezala eratzeko, kontseiluko kideen erdiak baino gehiago bertaratu beharko dira.

6. Titularren batek bertaratzerik ez duenean, KAKo idazkariari eta/edo ordezkari jakinaraziko dio, ordezkatu dezan.

Gaixorik egoteagatik edo beste arrazoi justifikatu batengatik ordezkoak bertaratzerik ez badu, kide titularrak bere botoa eskuordetu ahal izango du, egiaztatuta geratu dadin eta presidenteak behar bestekoa dela adierazi dezan.

7. Batzak bertaratutako edo ordezkaturako kideen gehiengoz hartuko ditu erabakiak. Berdinketarik gertatuz gero, presidenteak kalitate-botoa izango du, betiere kidea ere ez bada.

8. Jatorrizko Deiturari buruzko Araudiaren aldaketa-proposamena eta mahastiaren azalera handiagorako proposamena onartzeko, KAKren 2/3ren gehiengo kualifikatua lortu beharko da. Dena dela, administrazio eskudunari bidali beharko zaio lehenago, proposamena onartu dezan.

9. Edonola ere, batza behar bezala eratuta egongo da, kide guztiak bertaratu direnean eta aho batez halaxe erabaki dutenean.

10. Beharrezkoa dela uste badu, batzak bere funtzionamendu-arauak osatu ahal izango ditu. Nolanahi ere, araudi honetan xedatutakoa errespetatu beharko du beti.

11. artikulua. *Presidenteak.*

1. Presidenteak batzako kide hautetsien bi herenen gehiengo kualifikatuaren bidez aukeratuko dute, eta hautetsitako kideetako bat edo beste pertsona bat izan ahal da presidenteak. Batzak Eusko Jurlaritzako sail eskudunari emango dio aukeraketako emaitzaren berri, bertako sailburuak izendatu dezan.

2. Presidentearen agintaldiak lau urteko iraupena izango du, eta iraupen bereko epealdietarako hautetsi ahal izango dute berriro. Aipaturako epea amaitzeagatik ez ezik, honako arrazoi hauengatik ere amaitu ahal izango da bere agintaldia: dimisioa, ezintasuna, heriotza eta batzak bertako kideen erabateko gehiengoaz hartutako erabakia.

12. artikulua. *Presidentearen eginkizunak.*

1. Hona hemen presidentearen eginkizunak:

a) KAKren ordezkaria izatea. Ordezkaritza hori kontseiluko edozein kideri eskuordetu ahal izango dio berariaz, beharrezkoa denean.

b) Lege-xedapenak eta, batez ere, JDri buruzko Araudia betetzea eta betearaztea.

c) KAren erabakien arabera, diru-sarrerak eta fondoak administratzea eta ordainketak agintzea, indarreko legeria kontuan hartuta.

d) Batzaren ohiko eta ezohiko bilerak deitzea eta zuzentzea, gainerako kideek garaiz egindako eskaerak kontuan hartzen dituen gai-zerrenda zehaztea, haren eskumeneko gaiak batzara eramatea kasuan kasuko erabakia hartu dezan eta hartutako erabakiak betearaztea.

e) Erabakiak hartzeko orduan, bere botoaren bidez berdinketak desegitea.

f) Batzaren erabakiei buruzko aktak eta ziurtagiriak oniriztea.

g) Batzak onartu ondoren, KAko langileak kontratatzea, berritzea edo lanik gabe uztea, kontrol-egiturara atxikitako langileei ezarri beharreko arautegiari kalterik egin gabe.

h) Administrazio eskudunari ekoizpenean zein merkatuan gertatzen diren gorabeheren berri ematea eta, JDri buruzko Araudiak ematen dizkion ahalmenei erreparatuta, kontseiluak betearazpen orokorrerako hartzen dituen erabakiak administrazio berari bidaltzea, bai eta euren garrantziagatik administrazio horrek ezagutu behar dituen erabakiak ere.

i) Zerbitzuak antolatzea eta zuzentzea.

j) KAko presidente moduan berez dituen beste eginkizun guztiak edo kontseiluak ebatzitako eginkizunak edo administrazio eskudunak esleitutako eginkizunak garatzea.

2. Presidentea ez badago, abstenitu egiten bada edo errekusatu egiten badute, presidenteordeak ordezkatu du, eta, besterik ezean, urte gehien dituen kidea izango da ordezkoa. Heriotza, dimisio, ezintasun edo batzaren erabakigatik kargua hutsik geratuz gero, presidenteordeak presidentea ordezkatu du, eta, besterik ezean, urte gehien dituen kidea izango da ordezkoa, harik eta presidentea izendatu arte. Presidentearen ordezkoaren agintaldiak ordezkaturako presidenteari falta zaion epealdia baino ez du iraungo.

3. Batza eratzeko eta presidentea aukeratzeko bilerak adin-mahaiak zuzenduko ditu, eta urte gehien dituen kideak eta urte gutxien duten bi kideek osatuko dute. Horrela, mahasgintza eta ardogintzako sektoreak egongo dira ordezkaturak. Era berean, KAko idazkaria ere bertaratuko da.

13. artikulua. *Presidenteordea.*

1. Ahal dela, presidentea izendatzen duteneko batza berean izendatuko dute presidenteordea, edo, bestela, hilabeteko gehieneko epean. Betekizunak berberak izango dira, eta bere agintaldiaren iraupena ere bai.

2. Presidenteordeak presidentea ordezkatu du, presidentea ez dagoenean eta Barne Araudi honetan aurreikusitako kasuetan.

3. Presidenteordeak presidenteari eskuordetutako eginkizunak hartuko ditu bere gain, bai eta batzak berariaz ebatzitakoak ere.

14. artikulua. *Batzako kide titularrak.*

1. KAko Batzak 6 kide izango ditu. Dena dela, parekotasunik egonez gero, kopuru hori handitu egin ahal izango da honelaxe izendatutako ekoizpen-sektoreko ordezkarien eta prestaketa-sektoreko ordezkarien artean:

a) Ekoizpen-sektorearen ordezkariak diren hiru kide: “Bizkaiko Txakolina/Txakoli de Bizkaia/Chacolí de Bizkaia” egiteko mahatsa hornitzen duten mahastizainek aukeratu dituzte euren artean, betiere JDko Mahastien Erregistroan izena eman duten mahastietako titularrak badira.

b) Prestaketa-sektorearen ordezkariak diren hiru kide: JDko Erregistroan izena eman duten upategietako titularrek aukeratuko dituzte euren artean.

2. KAko kide aukeratutako pertsona juridikoek pertsona fisiko bat izendatuko dute, batzaren bileretan euren ohiko ordezkaria izan dadin. KAko presidenteari eta idazkariari emango diote horren berri, batzaren jakinarazpenak jaso ahal izateko. Ohiko ordezkariaren ustezko aldaketak justifikatuta egon beharko dira. Pertsona juridiko batek berak izendatutako ordezkari bat gaitzesten duenean, kargua utzi beharko du, nahiz eta bere kabuz edo JDko erregistroetan izena emandako beste pertsona juridiko batekin duen harremanagatik sektorerara lotuta jarraitu. Pertsona juridiko hori ez da izendatu zuena izango. Halakoetan, aukeratutako pertsona juridikoak ohiko beste ordezkari bat izendatu beharko du.

3. Kideak lau urtean behin berrituko dira, eta berriro hautetsi ahal izango dituzte.

4. Bere karguak dirauen bitartean, unean-unean indarrean dagoen Deiturari buruzko Araudian arautzen diren gaietan egindako arau-hauste larriagatik kideren bat zehatzen badute, baja hartu beharko du bere kabuz edo ordezkatzeko duen enpresaren bidez. Era berean, baja emango zaio, ordezkatzeko duen sektore edo sozietatearekin lotunea galtzen duenean edo JDko erregistroetan inskribatuta egoteari uzten dionean edo elkarren segidako hiru bileretara edo tartekako bost bileretara inolako arrazoirik gabe joan ez denean.

15. artikulua. Batzako ordezko kideak.

1. Kide titular bakoitzeko, ordezko kide bat aukeratuko da modu berean, eta kide titularrak bezalako betekizunak bete beharko ditu.

2. Gaixorik egonez gero edo beste arrazoi justifikatu batengatik bertaratu ezean, ordezko kideek batzako kide titularrak ordezkatzeko dituzte.

3. Dimititzeagatik, kargua uzteagatik edo beste arrazoi batengatik kargua hutsik badago, ordezko kidea kide titular bihurtuko da. Ordezkorik izendatu ezean edo ordezkorik egon ezean, ordezkatu beharreko kidearen azpitalde berean boto gehien lortu dituen hurrengo hautagaia izango da ordezkoa.

4. Hutsik dagoen kargua betetzeko ordezkorik ez dagoenean, ordezko berriak aukeratuko dira, kideak hautatzeko prozedura beraren bitartez.

16. artikulua. Batzako kideen eskubideak.

1. Honako eskubide hauek izango dituzte batzako kide guztiek:

a) Lau egun lehenago, bileretako gai-zerrenda zehazten duen deialdia eta aurreko bilerako aktaren zirriborroa jasotzea. Gai-zerrendako puntuei buruzko informazioa batzako kideen eskura egongo da epe berean, eta gai-zerrendako puntuetan eragina duten agiri eta txostenen kopiak eskatu ahal izango dituzte.

b) Bileretako eztabaidetan parte hartzea.

c) Galde-eskeak egitea.

d) Euren karguko beste eginkizun batzuk garatzea eta eginkizunok betetzeko beharrezko informazioa lortzea.

2. Presidenteak eta eskubide hori duten kideek botorako eskubidea erabiliko dute, eta, hala badagokio, euren boto partikularra emango dute, euren botoaren zentzua eta zergatiak azaltzeko.

3. Bozkatzeko eskubiderik ez duten batzako kideek euren iritzia adierazi ahal izango dituzte bileretako aktan.

17. artikulua. Idazkari nagusia.

1. KAK batzak izendatutako idazkaria izango du, eta bere menpe egongo da zuzenean.

2. Hona hemen idazkariaren eginkizunak:

a) Batzaren eta Batzorde Iraunkorraren bileretara joatea, hitzarekin, baina botorik gabe.

b) Bertako presidentearen aginduz, bileretarako deialdia eta kideentzako jakinarazpenak egitea.

c) Batzako kideen komunikazio-egintzak, jakinarazpenak, datu-eskaerak, zuzenketak edo ezagutu behar duen edonolako idazkia jasotzea.

d) Gaiak prestatzea, bileretako aktak egitea eta baimentzea, erabakien betearazpena bideratzea eta batzak edo presidenteak organo horien eskumeneko gaien prestaketaren eta instrumentazioaren inguruan esleitutako eginkizunak garatzea.

e) Galdeketen, irizmenen eta onartutako erabakien ziurtagiriak egitea eta idazkari moduan garatu beharreko beste eginkizun batzuk garatzea.

f) KAK emandako zerbitzuak antolatzea, batzak eta/edo presidenteak horretarako zehaztutako jarraibideak kontuan hartuta.

g) KAKo gobernu-organoen zerbitzura dauden langile guztiak zuzentzea eta koordinatzea eta jarduketa-arlo guztiak behar bezala dabiltzala ikuskatzea.

h) Egindako ikuskaritzen eta ziurtagirien espedienteak, agiriak eta datuak gordetzea, administrazioak kontsultatu ditzan.

i) KAKaren berezko zereginak izanda, kontseilutik kanpoko organismoei esleitutako zereginen ebaluazioa eta jarraipena egitea, hala badagokio.

j) Batzak zehaztutako jarraibideak kontuan hartuta, KAKaren kudeaketa ekonomikoa eramatea eta funtzionamenduari buruzko urteko memoria, kudeaketa ekonomikoari buruzko memoria eta aurrekontuaren zirriborroa egitea, presidenteak proposatu ostean batzak berak onartu ditzan.

k) JDri buruzko arautegi berezia behar bezala betetzen dela bermatzea eta batzari babespeko ardoen ekoizpenean, prestaketan, eraldaketan, merkaturaketan eta merkatuan gertatzen diren gorabeheren berri ematea.

l) Kontseiluko zerbitzuek Eusko Jaurlaritzako eta Bizkaiko Foru Aldundiko sail eskudunarekin lan egiten dutela bermatzea.

m) JDko erregistroetan izena emateko edo inskripzioa luzatzeko eskabideen berri ematea batzari.

n) Zehapen-prozedura irekitzeko eskabidea egokia den ala ez jakinaraztea batzari.

ñ) Baimendutako etiketen inguruko ustezko ez-betearazpenen berri ematea batzari.

o) Jatorriari buruzko ziurtagiriak egitea.

p) Kontseiluaren lanak prestatzea eta erabakien betearazpena bideratzea.

q) KAK irekitako zehapen-espedienteetako instruktorea izatea.

r) Batzaren erabakiz edo presidenteak eskatuta esleitu ahal zaizkion eginkizun guztiak garatzea.

3. Beharrezkoa dela uste badu, idazkariak ospe handiko aditu independenteen aholkularitza eskatu ahal izango du, txostenak egiteko orduan.

4. Edozein arrazoiengatik, idazkariaren kargua hutsik geratzen bada, izendapen berria egin beharko da hilabeteko epean.

18. artikulua. Batzorde Iraunkorra.

1. Batzak Batzorde Iraunkorra eratu ahal izango du, eta honako hauexek osatuko dute: presidentea, idazkaria eta, bi sektoreen pareko ordezkariaren printzipioa errespetatuta, batzak izendatutako bi kide titular ⁽¹⁾.

2. Batzorde Iraunkorraren eraketa erabakitzeko bileran, gai zehatzak, esleitutako eginkizunak eta funtzionamendu-araubidea ebatziko dira. Era berean, batzari jakinarazi beharreko erabakiak zein diren adieraziko da, lehenengo bileran ezagutu eta/edo berretsi ditzan.

3. Urtero, Batzorde Iraunkorrek ohiko eta ezohiko aurrekontuen proiektua eta horrekin batera aurkeztu beharreko memoria egingo ditu, batzak onartu ala gaitzetsi ditzan.

4. Batzorde Iraunkorraren erabakiak idazkariak edo gai zehatzetarako izendatutakoak kudeatu eta betearazi egingo ditu.

19. artikulua. Batzordeak eta lan-taldeak.

Batzak beharrezkoak iruditzen zaizkion aholku-batzordeak eta lan-taldeak sortzeko erabakia hartu ahal izango du.

20. artikulua. KAKo langileak.

1. KAK lan-araubidepean kontratatuko ditu bere helburua betetzeko beharrezkoak diren langileak, baina langile horiek ez dira inoiz administrazio publikoen zerbitzura dauden langileak izango.

2. Langileak batzak onartutako langile-taldeen arabera kontratatuko dira, betiere aurrekontuan kasuan kasuko kontu-saila gordailatu bada, batzak zehaztutako betekizunak eta merituak kontuan hartuta.

3. Kontseiluak aldi baterako beharrezkoak diren langileak kontratatu ahal izango ditu, lan bereziak edo zehatzak egiteko, betiere horretarako aurrekontu-saila zuzkitzen bada.

4. KAK behar besteko zerbitzu teknikoak edukiko ditu, bere ardurapeko eginkizun teknikoak betetzeko.

21. artikulua. KAKo zerbitzuak.

1. KAKo zerbitzuak ikuskaritzaren eta gai orokorren arloetan egituratzen dira, KAKo idazkariaren zuzendaritza eta koordinaziopean.

2. Ikuskaritza-arloan, mahasgintzako zein ardogintzako arduradun tekniko adituak egongo dira, eta Deiturari buruzko Araudia betetzen dela bermatuko da bertan.

3. Gai orokorren arloak, ordea, honako gai hauek hartuko ditu bere gain: baliabide pertsonal eta materialak, kudeaketa ekonomikoa, sustapen zein administratiorako jarduketak eta beste arlo batzuei esleitu ez zaien beste edozein gai orokor.

22. artikulua. Jatorrizko Deiturako erregistroak.

1. KAK honako erregistro hauek eramango ditu gutxienez:

⁽¹⁾ Ordezko kideek Batzorde Iraunkorrean parte hartu lezakete.

- a) Mahastien erregistroa.
- b) Upategien erregistroa (prestatzeko eta botilaratzeko atalak).
- c) Etiketen erregistroa.

2. Barne Araudi honetan zehaztuko da zein diren erregistroen baldintzak eta funtzionamendua eta nola eskatzen den bertan izena emateko. Dena dela, aurreko idatz-zatiko a) eta b) letretan aipatutako erregistroetan, operadore bakoitzaren ziurtapenari buruzko informazio eguneratua ere sartuko da.

23. artikulua. Erregistroen antolamendua eta izena emateko prozesua.

1. Erregistro bakoitzak honako tresna hauek izango ditu antolatzeko:

a) Inskripzioen liburua (euskarri fisikoan edo informatikoan). Bertan, hain zuzen ere, ustiategiko edo enpresako titularren izen-abizenak edo sozietatearen izena, helbidea eta jarduera agertuko dira.

b) Aurkeztutako agiriak artxiboan gordeko dira, ordea.

2. Babespeko ardoak ekoizteko, prestatzeko eta botilaratzeko etapa bat baino gehiago egiten duten operadoreek kasuan kasuko erregistro bakoitzean eman beharko dute izena.

3. Izena emateko eskabideak KAREN izenean joango dira berak emandako inprimaketan, eta kasuan-kasuan indarreko xedapenek eta arauak eskatutako edo KAK xedatutako datuak, agiriak eta egiaztagiriak erantsiko dira.

4. Aurkeztutako agiriak osagabeak izango balira edo beharrezko datu guztiak agertuko ez balira, interesdunak hamar eguneko epea eta, gehienez ere, berak eskatuta, hamabost eguneko epea izango luke, akatsak zuzentzeko edo kasuan kasuko agiria eransteke. Gainera, halaxe egin ezean, bere eskabidea artxibatu egingo dela jakinaraziko zaio, berariazko ebazpena hartu ondoren.

5. Kontrol-organismoaren txostena jaso ondoren, KAK Deiturari buruzko Araudiko aginduak, Barne Araudiko betekizunak edo KAK berak mahastiek zein upategiek eduki beharreko baldintza tekniko osagarriei buruz hartutako erabakiak (horren ondorioz, ez luketelako adostasun-ziurtagiririk edukiko) betetzen ez dituzten inskripzioak onartu edo gaitzetsi egingo ditu eta, hala badagokio, ezeztatu egingo ditu.

Kontseiluko erregistroetan baja emateko, desadostasunaren ebazpen administratiboa irmoa izan beharko da.

6. Halaber, Kontseilu Erregulatzailearen Plenoak Kontseilu Erregulatzaileak hartutako akordioak, kuotak ordaintzeko betebeharra edota Kontseilu Erregulatzailearekin diru-betebeharrak betetzen ez dituzten inskribatutako upategien edo mahastien titularrei aurretiko errekerimendurik gabe eta erabaki zergatidunaren bitartez baja ematea erabakiko du.

7. JDko erregistroetan izena emanda ere, interesdunek oro har ezarritako beste erregistro batzuetan ere eman beharko dute izena. Horrez gain, ziurtagiri eguneratua aurkeztu beharko dute izena emateko eskabidearekin batera.

8. Batzaren erabakiz, erregistroetako inskripzioa ofizioz ezeztatuko da, Eusko Jaurlearitzako organo eskudunak zehapen administratiboa ezartzen duenean eta, horren ondorioz, JDren erabilera aldi baterako edo behin betiko galtzen denean.

9. Erregistroetan agertzen diren adierazpenak oro har baino ez dira jakinarazi eta argitaratuko, hau da, banan-banako erreferentziarik egin gabe, datuak babesteko legeriaren babespean daudenean. Norberaren datuak era

berezian babestuko dira, identifikatutako edo identifikatu daitezkeen pertsona fisikoei buruzko edozein informazio, alegia.

(2017ko otsailaren 9ko Plenoaren Erabakiak 23. artikulua aldatu zuen)

24. artikulua. Mahastien Erregistroa.

1. Mahastien Erregistroan, ekoizpen-eremuan kokatuta dauden mahasti guztiek eman ahal izango dute izena, betiere bertako mahatsa babespeko ardoak egiteko erabili ahal bada eta barietatearen baldintzak betetzen badituzte.

2. Inskripzioan, honako haxe agertuko da, gutxienez: jabearen izena, eskubideen titularraren izena eta, hala badagokio, apartzeroaren, errentariaren, zentsu-hartzailearen edo jabari erabilgarriko beste edozein titularitatearen izena; mahastiaren, parajearen, udalerraren, poligonoaren eta lur-zatiaren izena; ekoizpenerako azalera; mahastien barietatea edo barietateak; eta, hala badagokio, ureztaketa-instalazioak dauden eta sailkapenerako zein lekurapenerako beharrezkoak diren datu guztiak.

3. Izena emateko eskabidearekin batera, honako hauexek ere aurkeztu beharko dira: azalaren adierazpen eguneratua eskaintzen duen Nekazaritza Ustiategiaren Erregistroa, katastroko planoak eta, KAK adierazitakoaren arabera, lur-zatien Sigpac fitxa xehea, Mahasgintzako Erregistroko inskripzioari buruzko datuak eta Bizkaiko Foru Aldundiak edo organismo ofizial eskudunak landaketarako emandako baimena eta inskripzioa.

25. artikulua. Upategien Erregistroa.

1. Upategien Erregistroan, ekoizpen-eremuan kokatuta dauden upategi guztiek emango dute izena, betiere izena eman duten mahastietako mahatsa bakarrik erabiltzen badute, ekoiztutako ardoek JD lortzeko aukera eduki dezaten.

2. Inskripzioan, honako haxe agertuko da, gutxienez: pertsona natural edo juridiko titularraren izena, udalerrria, kokalekua, ezaugarriak, andelen eta makinaren kopurua eta ahalmena, prestatzeko eta prentsatzeko sistema (mota eta ezaugarriak), ponpak eta iragazkiak, botilaratzeko sistema eta upategia behar bezala identifikatzeko eta katalogatzeko beharrezkoak diren datu guztiak. Egilea lokalen jabea ez bada, adierazi egin beharko da, eta inguruabar hori nahiz jabearen nortasuna egiaztatu beharko dira.

Eskabidean bertan, beste prestaketa-makinaren bat dagoen adieraziko da. Eskala egokira egindako planoak edo krokisa erantsiko da, eraikuntzaren zein instalazioen xehetasun guztiak azaltzeko. Era berean, honako hauexek ere erantsi beharko dira: Nekazaritza eta Arrantzako Industrien Erregistroko inskripzioaren ziurtagiria eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren osasun-ziurtagiria.

3. Ardoa egiteko eta botilaratzeko upategien erregistroan izena emateko, upategiek indarreko legeria bete beharko dute. Eusko Jaurlaritzako sail eskudunak upategi bakoitzak Nekazaritza eta Arrantzako Industrien Erregistroan inskribatuta edo inskripzio-prozesupean dituen makinei eta instalazioei buruz emandako informazioa eskainiko dio KARI (berak eskatuta).

4. Upategiak kasuan kasuko upategien erregistroan izena eman dezaten edo indarraldiari eutsi diezaion, ezinbestekoa izango da lokal independentean kokatuta egotea eta bertako eraikinak zein instalazioak "Bizkaiko

Txakolina/Txakoli de Bizkaia/Chacolí de Bizkaia” Jatorrizko Deiturarako eskubiderik gabeko ardoak egin, manipulatu edo biltegitzen dituen beste edozein lokaletatik banatuta egotea. Izan ere, gutxienez, bide publikoa egon beharko da euren artean.

5. JDren babespeko ardoa izena eman duten upategietan baino ez da botilaratuko, betiere ekoizpen-eremuaren barruan badaude. Halaxe ez bada, ardoak ez du JD erabiltzeko eskubiderik edukiko.

26. artikulua. Etiketen Erregistroa.

1. Etiketen Erregistroan, KAK JDren babespeko ardoak merkaturatzean erabiltzeko baimendutako etiketak inskribatuko dira.

2. Etiketen Erregistroan inskribatutako etiketetako marka eta izen komertzialak erabiltzean, indarreko legerian jabetza industrialari eta mahasgintzari zein ardogintzari buruz xedatutakoa hartuko da kontuan.

3. Inskripzioan, etiketan agertzen den markaren jabearen izena agertuko da gutxienez; eta, hala badagokio, lizentzia-titularraren edo Upategien Erregistroko edozein ataletan inskribatuta egon beharko den beste edozein titularitatearen izena.

4. Marka, izen komertzial edo sozietatearen izen bera babes-maila desberdineko edo zenbait eremu geografikotako edo jatorrizko deitura desberdineko ardoak merkaturatzeko erabiliz gero, erabilitako etiketa guztiak aurkeztuko dira, kontsumitzaileen artean nahasmendurik ez sortzeko behar besteko elementuak sartu direla egiaztatu ahal izateko.

5. Bere eskumenen esparruan, KAK etiketen inskripzioa gaitzetsiko du, bertako edukiak maiatzaren 7ko 5/2004 Legeko aginduak eta JDri buruzko Araudia betetzen ez baditu eta/edo kontsumitzaileen artean edonolako nahasmendua sortzerik badu.

27. artikulua. Inskripzioen indarraldia.

1. Kasuan kasuko erregistroetako inskripzioak indarrean egon daitezen, une oro bete beharko dira JDri buruzko arautegian eta Barne Araudi honetan zehaztutako betekizunak. Horrez gain, izena eman dutenek inskripzioan emandako datuetan gertatzen den edozein aldaketaren berri eman beharko diote KARI.

2. Inskribatuta egoteko, ezinbestekoa izango da kontrol-organismoaren ziurtagiria edukitzea. Adostasun-ziurtagiria galduz gero edo eduki ezean, jatorrizko deitura ardoak botilaratzean erabiltzeko eskubidea galduko da, KAK berariaz erabakitako salbuespenetan izan ezik.

3. KAK aldian aldiko ikuskaritzak egingo ditu, artikulua honetan xedatutako guztia benetan betetzen dela egiaztatzeko.

4. Erregistroak etengabe eguneratuko dira. KAKo idazkariaren kontrolpean eguneratuko dira, gainera.

5. Operadoreen jardueretan eta mahatsetan edo babespeko ardoetan eragina duen edozein aldaketa eginez gero, baldintza partikular hauek ezarri eta/edo aldatu ahal izango dira, eta ebazpen berri bat hartu ahal izango da, inskripzioaren edo berriztapenaren baldintzak eguneratzeko.

6. KAK inskripzioak eten edo ezeztatu egin ahal izango ditu, euren titularrek agindu horiek betetzen ez dituztenean.

28. artikulua. Erregistroetan izena ematea.

1. KAko kideak izango dira JDko erregistroetan izena eman duten pertsona naturalak edo juridikoak.

2. JDri buruzko arautegian zehaztutako betekizunak betez gero eta kasuan kasuko kuotak ordainduz gero, pertsona fisiko edo juridiko eskatzaileei ezin izango zaie erregistroetako inskripzioa ukatu, hurrengo idatz-zatietan xedatutakoari kalterik egin gabe.

3. Inskribatuta dauden pertsona natural edo juridikoei baja emango zaie kasuan kasuko erregistroan, bost urteko gehienezko epealdiari begira aldi baterako, zati batez edo osorik ixteko zehapen osagarria ezartzen zaionean.

4. Aurreko idatz-zatian aipatutako suposamenduetan, Mahasgintza eta Ardogintza Antolatzeko maiatzaren 7ko 5/2004 Legean aurreikusitako preskripzio-epeak ezarriko dira.

5. Erregistroan baja sortzen duen operadoreak kontseiluarekin bete gabe dituen betebeharrak bete beharko ditu, eta erabili ez dituen deituraren etiketa eta agiri guztiak itzuli beharko ditu.

29. artikulua. *Izena eman dutenen eskubideak.*

1. JDko erregistroetan izena eman duten pertsona natural edo juridikoek bakarrik ekoitzi ahal izango dute babespeko ardoak egiteko edo JDpean babestu beharreko ardoak egiteko mahatsa.

2. JDko kasuan kasuko erregistroetan izena eman duten sozietateek baino ez dute JD eta haren logotipoak erabiltzeko eskubidea izango JDri buruzko arautegiko eskakizunen arabera egindako ardoen propagandan, publizitatean, agirietan edo etiketetan.

3. Honako suposamendu hauetan, izena eman duten operadoreek ezin izango dute JD propagandan, publizitatean, agirietan edo etiketetan erabili:

a) Borondatez eta epe zehatzerako, ziurtagiria etetea eskatu dutenean.

b) Mahasgintza eta Ardogintza Antolatzeko maiatzaren 7ko 5/2004 Legean aurreikusitakoaren arabera, aldi baterako, zati batez edo osorik ixteko zehapen osagarria ezarri dietenean.

c) Kontrol-organismoak kanpaina bateko ardoari edo ardo-sorta zehatz bati JD erabiltzeko eskubidea aldi baterako kendu dionean.

4. Izena eman dutenek KAko hauteskunde-prozesuetan parte hartzeko eskubidea izango dute, batzutan dituzten ordezkarien hautesle moduan. Era berean, organo horretako kidegaiak izateko eskubidea ere edukiko dute, Euskadiko Autonomia Erkidegoak ezarritako hauteskunde-araubidearen arabera.

5. JDko Mahastien Erregistroan inskribatutako mahastiak dituzten pertsona natural edo juridikoek ustiategira atxikitako eraikinak badituzte, ezin izango dute JDraiko eskubiderik gabeko mahatsen, muztioen edo ardoen izakinik eduki.

6. Pertsona naturalek edo juridikoek inskribatutako mahastietako mahatsa eta inskribatutako beste upategi batzuetako muztioa edo ardoa baino ezin izango dituzte sartu inskribatutako lokaletan eta pertsona fisiko edo juridiko horiek helbidea duten lekuan, biak bat datozenean.

7. Batzak JDri buruzko Araudiko lehen eta bigarren xedapenetan adierazitako ardoak egiteko baimena eman ahal izango die inskribatutako pertsona natural edo juridiko eskatzaileei, betiere araudiko hirugarren xedapenean xedatutakoa betetzen badute.

8. KAKo kide moduan eduki dezaketen edozein eskubide erabiltzeko edo KAK emandako zerbitzuak jasotzeko, izena eman duten pertsona fisikoek edo juridikoek euren betebeharrak ekonomikoak bete beharko dituzte, ordainketak egunean eduki beharko dituzte eta kasuan kasuko inskripzioak eguneratuta eduki beharko dituzte.

30. artikulua. *Izena eman dutenen betebeharrak orokorrak.*

1. Kasuan kasuko erregistroetan izena ematean, inskribatutako pertsona natural edo juridikoek araudi honetako xedapenak eta KAK bere eskumenen esparruan hartutako gainerako erabakiak bete beharko dituzte. Horrez gain, kasuan kasuko kuotak eta tarifak ordaindu beharko dituzte.

2. Hain zuzen ere, JDko erregistroetan izena eman duten pertsona natural edo juridikoek honako betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Deiturari buruzko arau bereziak, bertan ezarri beharreko gainerako arauak eta KAK hartutako erabakiak eta ebazpenak betetzea.

b) Kontseiluko ikuskaritza-zerbitzuek jarraipen eta kontrolerako egindako bisitetan laguntzea eta ikuskaritza-bisitak egiteko aukera ematea. Batez ere, ustiatzeko edo enpresako mahasti, bulego eta eraikin guztietan askatasunez sartzeko baimena eman beharko dute.

c) Honako hauexei buruzko edonolako informazioa ematea: ustiatzeko eta instalazioak; produktuak, zerbitzuak edo ekoizpen edo prestaketarako sistemak; eta babespeko ardoen arloarekin eta mahasgintzari zein ardogintzari buruzko legeriaren eta araudiaren betearazpenarekin zerikusia duten agiri teknikoak, industrialak, merkataritzakoak eta kontabilitatekoak. Horrez gain, halaxe eskatzen dietenean, euren kopia edo erreproduktzioa eman beharko diete ikuskaritzako teknikariei.

d) Babestutako ardoen mugimenduaren, egindako transakzioen eta beste edozein eragiketaren egiaztagiriak erakustea, justifikazioa agiri horietan dagoenean. Horrez gain, halaxe eskatzen dietenean, euren kopia edo erreproduktzioa eman beharko diete ikuskaritzako teknikariei.

e) KAKo ikuskaritza-zerbitzuei ekoitzi, egin, banatu, ontziratatu edo merkaturatzen dituzten merkantzia, produktu edo mahastietako laginak hartzen uztea.

f) JDko erregistroetan dituzten inskripzioak eguneratuta edukitzea.

g) Bere garaian, KAKo inskripzioan emandako datuetan eragina duen edozein aldaketaren berri ematea idatziz. Jakinarazpena ahalik eta lasterren egin beharko da, aldaketa hori egiteko kontseiluaren baimena behar denean eta administrazioak erregistroetan aldaketa egin duenean.

h) Inprimatu eta kaleratu baino lehen, kontseiluaren baimena lortzea JDri buruzko zehaztapenak eraman behar dituzten ardoen publizitate eta sustapenerako edozein materialetako edukietan.

i) JDren babespeko ardoak araudi honetan xedatutakoaren arabera behar bezala etiketatuta merkaturatzea.

31. artikulua. *Babespeko ardoen izendapena, deitura eta aurkezpena.*

1. Merkaturatzeko aukeratutako ontzi-mota edonolako dela ere, kontsumorako ardoek KAK emandako eta zenbakitutako berme etiketak edo kontraetiketak eraman beharko dituzte, eta upategian bertan jarri beharko dira, KAK hartutako erabakien arabera eta bigarren aldiz ez erabiltzeko moduan.

2. Botilaratutako ardoen etiketetan, derrigorrean eta modu nabarian agertu beharko da JDren izena, bai eta ezarri beharreko legerian zehaztutako datu orokorrak ere. Era berean, modu nabarian ere agertuko da upategia zer udalerritan kokatuta dagoen.

Jatorrizko Deitura (Babestua) jarri beharrean, JDB siglak jarri daitezke.

3. Etiketak zirkulazioan jarri baino lehen, KAren baimena eduki beharko dute, JDri buruzko Araudian eta araudi honetan aipatutako ondorioetarako. Etiketak ez dira onartuko, edozein arrazoiren ondorioz kontsumitzaileen artean nahasmendua sortzerik badute. Era berean, aurretiaz emandako etiketaren baten baimena ere ezeztatu ahal izango da, konpainia jabearen etiketan aipatutako inguruabarrak aldatu direnean.

4. Upategien Erregistroan izena eman duten enpresek sozietatearen izena edo, horren orde, euren titularitatepeko merkataritza-izenak erabili ahal izango dituzte, betiere Kari horren berri eman badiote eta izen horiek JDren babespeko ardoetan erabiltzean sortu daitezkeen gorabeheren gaineko erantzukizuna euren gain hartuko dutela berriaz adierazten badute.

5. Enkargupean botilaratutako ardoetan, botilaratzen duenaren sozietatearen izenaren orde, botilaratzen duenaren erregistro-zenbakia jarri ahal izango da.

6. Etiketatako elementu bereziak zehaztapenean aipatutako urtean bildutako mahatsaz egindako ardoetan baino ez dira ezarriko: bariatatearen izena edo "uzta", "urtabea", "mahats-bilketa" edo beste baliokide batzuk.

7. Kasuan kasuko prozedura bideratu ondoren eta kanpoko kontrol-erakundearen txostena jaso ondoren, batzak artikuluko 3. idatz-zatiaren arabera emandako baimena ezeztatu ahal izango du, etiketen jabearen edo KAKo Erregistroan izena eman duen pertsona fisiko edo juridikoaren inguruabarrak aldatzen direnean.

32. artikulua. Aldian aldiko derrigorrezko adierazpenak.

1. Ekoizpena, prestaketa, izakinak, kalitateak, merkaturatutako ardo-motak eta ardoen jatorria eta kalitatea egiaztatzeko beharrezkoa den guztiak kontrolatu ahal izateko, mahastien eta upategien titularrak diren pertsona natural edo juridikoek honako adierazpen hauek aurkeztu beharko dituzte KAK zehaztutako moduan:

a) Mahats-bilketa amaitutakoan edo, bestela, urte bakoitzeko azaroaren 30a baino lehen, Mahastien Erregistroan izena eman duten sozietate guztiak inskribatutako lur-zati bakoitzean lortutako mahats-uztaren adierazpena aurkeztu beharko dute. Bertan, gainera, mahatsa nora joan den eta zer upategi ardogileari eman dioten azaldu beharko da. Zenbait mahats-mota ekoitziz gero, beltza ala zuria den, mota bakoitzean zenbat lortu den eta zer bariatatekoa den adierazi beharko dute.

b) Upategien Erregistroan inskribatutako sozietate guztiak honako hauxe aitortu beharko dute KAren aurrean:

b.1) Urte bakoitzeko azaroaren 30a baino lehen, zenbat muztio eta ardo lortu duten, egindako mota guztiak bereizita. Era berean, mahatsa nongoa den eta, mahatsa biltzeko kanpainan salduz gero, produktuak nora doazen eta nork eta zenbat erosi duen adierazi beharko dute.

b.2) Urte bakoitzeko irailaren 7a baino lehen, uztailaren 31n dituzten muztioen eta ardoen izakinei buruzko aitortpena egin beharko dute.

c) Upategien Erregistroan inskribatutako sozietate guztiek euren produktuen sarreren eta irteeren erregistro eguneratua eraman beharko dute, eta erositako ardoak nongoak diren adierazi beharko dute. Dena dela, ardo-motak bereizi beharko dira. Erregistro horretako datuak KAren esku egongo dira une oro.

d) Erregistroetan izena eman duten sozietateek upategian erabili gabe dituzten kontraetiketen eta zigiluen izakinen erregistro eguneratua eraman beharko dute. Erregistro horretako datuak KAren esku egongo dira une oro.

2. Batzak artikulu honetan aipatutako aitortpenak sistema informatikoen edo telematikoen bidez egitea ezarri ahal izango du, aurrerakuntza tekniko modernoenetara egokitu ahal izateko. Dena dela, jakinarazpenak jaso egiten direla, inskribatuen nortasuna babesten dutela eta isilekotasunari eusten diotela bermatu beharko da.

3. Artikulu honetan aipatutako aitortpenek ondorio estatistikoak dituztenez, zenbakitan baino ez dira eskainiko eta argitaratuko, banan-banako inolako erreferentziarik egin gabe.

33. artikulua. *Babespeko ardoen zirkulazioa.*

1. Inskribatutako sozietateen artean mahatsa, muztioa edo ardoa mugitzen bada, mahasgintzari zein ardogintzari buruzko indarreko legerian zehaztutako agiriak ez ezik, KAK upategien arteko zirkulaziorako egindako agiria ere aurkeztu beharko da, KAK berak zehaztutako moduan.

2. JDren babespeko ardoak inskribatutako upategiek baino ez dituzte kaleratuko eta bertan bakarrik mugitu ahal izango dira, ardoaren kalitatearen edo prestigioaren kalterako ez diren ontzietan, betiere ekoizpen-eremuaren barruan badaude. Bestela, JD erabiltzeko eskubidea galdu ahal izango du ardoak.

3. JDren izena behar den moduan erabiltzen dela bermatzeko, babespean merkaturatutako ardo guztiak botilaratuta kaleratuko dira.

34. artikulua. *Sarreren eta irteeren arteko bateratasuna.*

Upategien Erregistroan izena eman duen sozietate bakoitzak kaleratutako txakolin guztia norberak bildutako edo erositako mahats-kopuruen, aurreko kanpainen izakinen eta inskribatutako beste enpresa batzuei erositako ardo eta muztioen arabera izan beharko da. KAK behar besteko ikuskaritza-neurriak ezarriko ditu, kanpaina bakoitzean oinarrizko baldintza hori bete egiten dela egiaztatzeko.

35. artikulua. *Babespeko produktuen aurkezpena.*

JDren babespeko ardoak euren kalitatearen eta prestigioaren kalterako ez diren ontzietan merkaturatuko dira kontsumorako. Oro har, ontziak ez itzultzeko beirazkoak izan beharko dira, eta kasuan kasuko legeriaren arabera baimendutako edukiera izango dute. Salbuespenez, KAK babespeko ardoen kalitatearen edo prestigioaren kalterako ez diren beste era bateko ontziak baimendu ahal izango ditu erabilera berezietarako, merkaturaketa sustatzeko asmoz.

36. artikulua. *Kalifikazioa.*

1. Kontrol-organismoaren txosten loteslearen txostena jaso ondoren, KAK berak emango du JDren izena erabiltzeko eskubidea.

Ardoak KAK horretarako zehaztutako prozeduraren arabera kalifikatuko dira.

2. Kasuan kasuko erregistroetan izena eman duten mahastietan eta upategietan ekoiztutako ardoetan baino ez da JD ezarriko, betiere JDri buruzko Araudian eskatutako arauen eta kalitateko ardoak egiteko ezarri beharreko gainerako arauen arabera egin badituzte eta ezaugarri fisiko-kimiko, enologiko eta organoleptiko bereizgarriak betetzen badituzte.

3. Ekoizpenean zehar mahats, muztio edo ardo sortaren batek akatsik badu edo txarto badago edo JDri buruzko Araudiko lege zein kalitate aginduak edo indarreko legerian zehaztutako beste agindu batzuk betetzen ez badira, ezin izango dute JDren izena erabili eta ez dira kalifikatuko.

4. Kalifikatu gabeko ardoak KAK kontrolatutako biltegi bereizietan gorde beharko dira.

37. artikulua. Kalifikatutako ardoen jarraipena. Deskalifikazioa.

1. Ardoek kalifikazio-fasea gainditu dutenean eta, horren ondorioz, JDren izena erabiltzeko eskubidea lortu dutenean, euren ezaugarri organoleptiko bereizgarriei eutsi beharko diete, berezko bilakaera egokiaren ondorioz kolorean, usainean eta zaporean sortutakoak kontuan hartuta.

2. Behin betiko merkaturatu baino lehen, KAK edozein fasetan deskalifikatu ahal izango ditu ardoak.

3. Babesik gabeko produktuak garraiatzeko, ezinbestekoa izango da KARI ahalik eta lasterren horren berri ematea, beharrezko kontrol-neurriak hartu ahal izateko.

4. Aurretiaz deskalifikatutako beste produktu batekin nahastean lortutako edozein produktu deskalifikatuko da.

5. Kalifikazioa lortu ez dutenean edo deskalifikatu dituztenean, ardoek KAK zehaztutako erabileretara joango direla egiaztatu beharko dute, eta kasuan kasuko mahasgintza eta ardogintza urteko uztailearen 31 baino lehen atera beharko dira upategitik.

38. artikulua. KAREN finantziazioa.

1. KAK honako baliabide hauek edukiko ditu, bere helburua betetzeko:

a) Izena eman dutenek JDri buruzko Araudian zehaztutako kontzeptu eta zenbaterako edo ehunekoengatik ordaindu behar dituzten kuotak.

b) Operadoreek 4. idatz-zatian adierazitako moduan ordaindu beharko dituzte kontrol-organismoaren zerbitzugintzagatik zehaztutako tarifak.

c) Beste zerbitzugintza batengatik edo JDren izenaren erabileragatik zehaztutako tarifak.

d) Administrazio publikoetako aurrekontu orokorretan urtero zehaztu daitezkeen dirulaguntzak.

e) Bertako ondarearen errentak eta produktuak.

f) Dohaintzak, legatuak eta jaso ditzakeen gainerako laguntzak.

g) Jaso beharreko beste edozein baliabide.

2. KAKo erregistroetan izena eman duten operadoreek urteko kuota finkoa ordainduko dute, eta Bizkaiko KPIren arabera eguneratuko da.

3. KAKo erregistroetan izena eman duten operadoreek honako honexen arabera zehaztutako kuota aldagarriak ordaindu beharko dituzte:

a) Inskribatutako mahastietako titularrek aurreko urteko uzta inskribatutako mahastiaren azaleraren araberrako kuota ordaindu beharko

dute. Kuota hori, gainera, urteko kuota aldagarri guztiaren %10ekoa izango da.

b) Inskribatutako upategietako titularrek kontsumitzen dituzten zigiluen araberako kuota ordaindu beharko dute, KAK urtero zehaztutako prezioa kontuan hartuta. Kuota hori, gainera, urteko kuota aldagarri guztiaren %90ekoa izango da.

c) Operadoreak eskatuta, jatorriari buruzko ziurtagiriak eta beste agiri batzuk egiteagatiko kostua.

4. Kontrol-organismoaren kostuak honako hauexek finantzatuko dituzte:

a) KA: kontrol-organismoak mahastien kontrol, ohiko kontrol-bisita eta KAK eskatutako ezohiko bisitengatiko faktura jaulkitzen duenean.

b) Inskribatutako upategiak edo mahastizainak: kontrol-organismoak desadostasunen eta desbideraketen ondorioz sortutako lanengatiko faktura jaulkitzen duenean.

Halakoetan, faktura KAREN izenean jaulki arren, kanpoko kontrol-erakundearen jarduketa sorrarazi duen upategiari edo mahastizainari eskatuko zaio zenbatekoa ordaintzeko.

5. Ordaindu ezean, kuotak premiamenduz eskatu ahal izango dira.

6. Aurreko idatz-zatiak ezartzeko asmoz, batzak egoera berezietarako egokitzapenak edo salbuespenak ezarri ahal izango ditu inskribatutako mahasti eta upategi zehatzentzat; esate baterako, egoera finantzario zaila, azalera txikia eta antzeko beste batzuk.

39. artikulua. Aurrekontua, urteko jarduketa-memoria eta inbentarioa.

1. Urtero, KAKo idazkariak hurrengo ekitaldiko aurrekontua egingo du, eta presidenteari bidaliko dio, batzari proposatu diezaion eta urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan onartu dadin.

2. Urtero, KAKo idazkariak aurreko ekitaldiko urteko jarduketa-memoria eta aurrekontu-likidazioa egingo ditu, eta presidenteari bidaliko dio, beharrezkoak iruditzen zaizkion aldaketak egin ostean batzari proposatu diezaion eta urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan onartu dadin.

3. Artikulu honetako lehenengo eta bigarren idatz-zatietan aipatutako agiriak martxoaren 1a baino lehen bidaliko dira Eusko Jaurlaritzako eta Bizkaiko Foru Aldundiko sail eskudunetara.

40. artikulua. Kontabilitate-araubidea.

1. KAK kontabilitate-plana eramango du, eta, berezitasunak berezitasun, Euskadiko Autonomia Erkidegoko administrazioaren arau finantzario eta aurrekontu-arauetan xedatutakoa ezarriko da bertan. Kontabilitate-planean, gainera, diru-sarreraren eta gastuen mugimendua banatuta agertuko da, bai eta ondarearen egoeran gertatzen diren aldaketa guztiak ere. Urtero, kasuan kasuko balantzea egingo da, eta ondarearen egoera zein egoera ekonomiko eta finantzarioa nolakoak diren azalduko da bertan.